BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3110

AGINDUA, 2013ko maiatzaren 29koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Fundación Biozientziak-Gipuzkoa Fundazioaren estatutuetan egindako 11. artikuluan aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Aztertuta geratu da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzen duen espedientea. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2012ko azaroaren 15ean, Herri Administrazio eta Justizia Sailean sartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan aldaketa bat inskribatzeko eskabide bat, zein Fundación Biozientziak-Gipuzkoa Fundazioaren estatutuetako 11. artikulua (Patronatukideak izendatu eta kentzea) aldatzeari buruzkoa baitzen. Aldaketa hori egitea Fundazioaren Patronatuak erabaki zuen, 2013ko maiatzaren 26an. Espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion eskabideari.

Bigarrena.– Aldaketaren ondorioz, estatutuetako 11. artikulua honela geratzen da:

«11. artikulua.– Patronatukideak izendatu eta kentzea.

Eratze-eskrituran agertzen diren erakunde eratzaileek izendatuko dute aurreneko patronatua. Patronatukideen izendapenak eta kargu-gabetzeak Fundación Biozientziak Gipuzkoa Fundazioaren Patronatuak erabakiko ditu, honako irizpide hauek betez:

a) Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa-KUTXAko lehendakaria izango da patronatukide.

b) Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa-KUTXAko lehendakariordeetako bat izango da patronatukide.

c) Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa-KUTXAko Gizarte Ekintzako zuzendaria izango da patronatukide.

d) Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa-KUTXAko Administrazio Kontseiluak izendatutako beste hiru pertsona fisiko (3) ere izango dira patronatukide.

e) Gipuzkoako Lurralde Historikoko diputatu nagusia izango da patronatukide.

f) Gipuzkoako Berrikuntza eta Garapen Ekonomikoaren arloko foru diputatua izango da patronatukide.

g) Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak izendatutako beste lau pertsona fisiko (4) ere izango dira patronatukide.

h) Fundación Biozientziak Gipuzkoa Fundazioaren erakunde laguntzaile deklaratutako entitate publiko edo pribatuen ordez aritzeko eta bere proposamenez izendatutako hiru pertsona (3) izango dira patronatukide, gehienez ere.

Izendatutako patronatukideek legearen 12. artikuluan aurreikusitako formularen bat erabiliz onartuko dute kargua, berariaz onartu ere. Onartze hori Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

Heriotzak, gaitasunik ezak, ez-gaitzeak, heriotza-deklarazioak, bazterketak edo bateraezintasunak eragindako karguren bat hutsik geratzen bada, beren agintaldia, ukoa, kargu-kentzea edo gobernu-organoko kideren baten ordezkapena edo kargugabetzea eragiten duen beste egoeraren bat gertatzen bada, kargu horiek prozedura bera erabiliz beteko dira, eta betegabetasun-aldi horrek gehienez ere 6 hilabete iraungo du.

Zehatz esanda, betetzen duten kargu publikoagatik edo pribatuagatik hautatuak izan diren patronatukideek Patronatuan jarraituko dute hala izaten jarraitzen duten bitartea, eta ordeztu ahal izango ditu beren izendapena ekarri zuen kargu publikoa edo pribatua hartzen duenak.

Patronatukideek izango dute gobernu-organoan gutxienezko kide-kopuruari eusteko ardura, ebazpen baliodunak hartzeko estatutuetako 10. artikuluak zehazten duena.

Epaileak patronatukideak kargugabetzea erabaki ahal izango du haien aurka erantzukizun-egintza baliatzen bada, legean eta estatutu hauetako 21. artikuluan aurreikusitako arduraz aritzen ez badira karguan.

Gobernu-organoko kideen ordezkapena, etendura eta kargu-uztea Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira».

Bigarrena.– 2013ko urtarrilaren 7ko idazki baten bidez, Fundazioen Erregistroak harako fundazioari eskatu zion ezen, atzemandako akatsak zuzendu zitzala; 2013ko maiatzaren 21ean sartu zen Herri Administrazio eta Justizia Sailean fundazioak bidalitako dokumentazioa.

Laugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, ebazpen-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak. Aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Ikusirik aipatutako arauak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Donostiako Fundación Real Sociedad Fundazioaren estatutuetako 11. artikuluan (Patronatukideak izendatu eta kentzea) egin diren aldaketak inskribatzeko agintzea, Fundazioaren Patronatuak 2011ko maiatzaren 26an erabakitakoak, agindu honen data dutela, 2012ko urriaren 4an Jose Carlos Arnedo Ruiz notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren zehaztapenekin bat etorriz (protokolo-zenbakia: 2470). Eskritura hori notario horren 2013ko maiatzaren 9ko eginbidearen bitartez zuzendu da.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 29a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.